

KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2026ko martxoa

Aurkibidea

1. Gizarte Segurantzako afiliazioa
2. Langabezia erregistratua
3. Inflazioa
4. Kanpo merkataritza
5. Sentimendu ekonomikoa
6. Consensusen aurreikuspenak

Eranskina

1. Gizarte Segurantzako afiliazioa %1,0 hazi zen otsailean

1.028.000 kotizatzaile baino gehiagorekin serie historiko osoko otsailik onena bihurtu da.

2. Erregistratutako langabeziak behera egin du berriro Euskadin

Kontratu berrien %26,3 mugagabeak dira.

3. Inflazioa %2,3ra jaitsi zen urtarrilean

Azpiko inflazioa %1,2ra murriztu zen.

4. Atzerrirako esportazioek %3,6ra murriztu dute jaitsiera 2025ean

Inportazioak ere murriztu egin dira, baina intentsitate txikiagoarekin.

5. Sentimendu ekonomikoa apaldu egin da eta bilakaera desberdina izan du herrialdeen artean

Espainia ekonomia sendoen artean kokatu zen berriro, otsailean adierazlea zertxobait murriztu arren.

6. Munduko ekonomiarako aurreikuspenak hobera egin dute, neurrizko testuinguru batean

Munduko ekonomiarako espero den BPGaren hazkundera %2,7an egonkortu da.

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

Gizarte Segurantzako afiliazioa %1,0 hazi zen otsailean

Gizarte Segurantzako afiliazioa 1.028.407 kotizatzailek lortu zuten otsailean Euskadin, %1,0 hazi baitzen 2025eko otsailaren aldean. Horrek esan nahi du, beste behin ere, otsailerako maximoa izan dela serie historikoan, eta 2026a hasi zeneko tonu positiboaren jarraipena berresten du. Sexuaren araberrako analisia emakumeen eta gizonen arteko hazkunde orekatua erakusten du, 2025ean finkatu zen patroiararen ildotik.


Emakumeen afiliazioak 495.891 izan ziren, eta gizonenak 532.513, %1,0ko eta %1,1eko hazkundeekin, hurrenez hurren. Oro har, datuek berresten dute EAEko lan merkatuak hazkunde moderatu baina sendoa duela, eta bi segmentuak aldi berean hobetu direla. Lehen bihilekoaren bilakaerak adierazten du enplegua sendotu egingo dela, bigarren hiruhilekoko ohiko suspertzearen zain.

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

GUZTIRA


Urte arteko aldakuntza tasa

OTSAILAKO AFILIAZIOA
%1,0




GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa




GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa




AFILIAZIOA INDUSTRIAN

Urte arteko aldakuntza tasa



AFILIAZIOA ZERBITZUETAN

Urte arteko aldakuntza tasa



Otsailean, zerbitzuen sektorea izan zen berriro enplegu sorreraren buru, %1,3ko hazkundearekin, osasun jarduerak, administrazio eta lanbide zerbitzuek eta hezkuntzak bultzatuta, eta merkataritzak izan zuen doikuntzarik esanguratsuena.

Industriak bilakaera ia egonkorra izan zuen, baina urtarileko eta otsaileko aurrerapenek (%0,2) hobekuntza txiki bat erakusten dute iazko itxieraren aldean.

GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTA DAUDEN LAGUNAK

	2025eko otsaila	2026ko otsaila	Aldakuntza
AFILIAZIOA GUZTIRA	1.017.897	1.028.407	10.510
Industria manufakturagileak	174.963	175.024	61
Merkataritza	133.977	125.378	-8.599
Osasun arloko jarduera	114.047	116.042	1.996
Hezkuntza	87.032	88.013	981
Ostalaritza	71.096	71.820	724
Administrazio jarduerak	68.508	69.547	1.039
Lanbide jarduerak	64.871	66.122	1.251
Eraikuntza *	59.051	59.048	-3
Administrazio publikoa	52.509	52.660	151
Garraioa	46.968	47.911	943
Informazioa eta komunikazioa	28.028	28.344	315
Etxeko langileak	27.755	27.938	182
Bestelako zerbitzuak	27.023	35.673	8.651
Jarduera artistikoak	20.062	20.829	767
Finantza jarduerak	17.418	17.694	276
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	11.158	11.007	-150
Ur horniketa	6.617	6.774	157
Higiezin jarduerak	4.418	6.018	1.600
Energia horniketak	1.748	1.906	159
Erauzketa industriak	560	568	9
Lurraldez kanpoko erakundeak	90	89	-1

Iturria: Gizarte Segurantza. (*) EJSN-2025 berriaren ezarpenak jardueraren zati bat birsailkatu du eraikuntzatik higiezin jardueretara, eta desoreka sortu du urte arteko konparazioan.

LANGABEZIA ERREGISTRATUA

Erregistratutako langabeziak behera egin du berriro Euskadin

Euskadik otsailean langabeziaren beheranzko joerari eutsi zion, 106.994 langaberekin, 2008tik otsailean izandako kopururik txikiena. Urte arteko aldakuntza tasak %1,3ko jaitsiera erakusten du, eta urtarrileko beherakadarekin batera, abenduako geldialdiaren ondoren beheranzko bidearen susperraldia berresten du.


Kontratazioaren egonkortasunak ere bilakaera positiboa izan zuen, azken lan erreformaz geroztik indartzen jarraitzen baitu. Otsailean 52.954 kontratu sinatu ziren, eta horietatik %26,3 mugagabeak izan ziren, hau da, lautik bat baino gehiago. Kontratazio mugagabeak, gainera, 2025eko otsailean baino bi puntu gehiago egin du aurrera, euskal lan-merkatuan duen egiturazko pisua sendotuz.

LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GUZTIRA

Urte arteko aldakuntza tasa


LANGABEZIA ERREGISTRATUA. OTSAILA

-%1,3




LANGABEZIA ERREGIST. EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa




LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA. GAZTEAK


Urte arteko aldakuntza tasa



Gizonen eta emakumeen langabezia mailak behera egin du, $-\%2,3$ eta $-\%0,6$, hurrenez hurren. 25 urtetik beherakoen artean langabezia $-\%1,9$ jaitsi zen, eta adin horretatik gorakoen artean $-\%1,3$, batez besteko orokorraren ildotik. Sekto- reka, urte arteko jaitsierak orokorrak izan ziren.

LANGABEZIA. ATZERRITARRAK

Urte arteko aldakuntza tasa



Eraikuntza nabarmendu zen murrizketen artean, eta industria izan zen igoera izan zuen eremu bakarra ($\%1,3$). Azkenik, atzerritarren langabezia $\%1,0$ hazi zen urte batetik bestera, irailean hasi- tako goranzko joerari eutsiz, baina hazkunde erritmoa moteldu egin zen aurreko hilabeteen aldean.

LANGABEAK

	2025eko otsaila	2026ko otsaila	Aldakuntza
LANGABEAK GUZTIRA	108.453	106.994	-1.459
LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA			
Araba	18.575	18.286	-289
Bizkaia	61.237	60.280	-957
Gipuzkoa	28.641	28.428	-213
SEXU ETA ADINAREN ARABERA			
Gizonak	45.698	44.632	-1.066
Emakumeak	62.755	62.362	-393
25 urtetik beherakoak	9.831	9.642	-189
25 urte baino gehiago dutenak	98.622	97.352	-1.270
EKONOMIA SEKTOREAREN ARABERA			
Lehen arloa	1.960	1.847	-113
Industria	10.109	10.238	129
Eraikuntza	5.723	5.318	-405
Zerbitzuak	76.599	75.221	-1.378
Lehenago lan egin dutenak	94.391	92.624	-1.767
Lehenago lan egin ez dutenak	14.062	14.370	308
ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. ATZERRITARRAK			
Langabe atzerritarra	20.786	21.003	217

Iturria: SEPE.




**Ekonomia, Lan eta
Enplegu Saila**

INFLAZIOA

Inflazioa %2,3ra jaitsi zen urtarrilean

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Inflazioa %2,3koa izan zen urtarrilean, aurreko hilean baino sei hamarren gutxiago. Beherakada horren arrazoi nagusia energiaren merkatzea da (-%2,4). Hori dela eta, 2025eko urtarilaren aldean, hondar-inflazioa oso neurritsua izan zen (%1,2). Aitzitik, azpiko inflazioak %2,6raino egin zuen gora, bai zerbitzuen bai elikagaien garestitze handiagoak bultzatuta.


KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2024	2025	2026ko urtarila	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	3,1	3,0	2,3	2,3
Azpiko inflazioa (%85,3)	3,2	2,6	2,6	2,1
- Elikagai landuak (%14,1)	4,6	2,1	2,9	0,4
- Industria ondasunak (%18,5)	1,2	0,9	-0,4	-0,1
- Zerbitzuak (%52,7)	3,5	3,4	3,6	1,8
Hondar inflazioa (%14,7)	2,6	5,2	1,2	0,2
- Landu gabeko janariak (%6,8)	4,0	6,8	6,3	0,4
- Energia (%7,9)	1,0	4,1	-2,4	-0,2


AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa




HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



ELIKAGAIEN PREZIOA


Urte arteko aldakuntza tasa



Urtarrilean, elikagaiek eta zerbitzuek prezioek tentsiopean jarraitu zuten Euskadin. Produktu freskoek erosketa saskiaren garestitzeari eutsi zioten, eta zerbitzuetan, batez ere jatetxeetan eta ostatuetan, inflazio mailak altuak izan ziren, aseguruetan eta finantza jardueretan apaltze joera txiki bat egon bazen ere. Inflazioa gehien moteldu zuten taldeak jantziak eta oinetakoak (-%3,9) eta etxebizitza eta hornidurak (-%1,6) izan ziren, elektrizitatearen garestitze txikiagoari

ZERBITZUEN PREZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



eta petrolioarekin lotutako erregaien merkatzeari esker. Garraioak argi eta garbi murriztu zuen bere erritmoa %0,2raino. Aitzitik, jolas-jarduerak, kirola eta kultura %1,8 hazi ziren. Elikagaien eta zerbitzuen beheranzko erresistentziak zaildu egiten du oraindik azpiko inflazioa %2,0ra iristea, baina etxebizitza, garraio eta industria ondasunen zuzenketa handiak inflazioa mailarik baxuenean jarri zuen 2024ko urriaz geroztik.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2026ko urtarrila

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	2,3	2,3	1,7
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	3,9	3,0	2,6
Edari alkoholdunak eta tabakoa	4,5	4,5	2,8
Jantziak eta oinetakoak	-3,9	-1,9	0,5
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	1,6	2,7	0,4
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	1,0	0,8	0,3
Osasuna	2,0	2,2	2,6
Garraioa	0,2	-0,1	0,4
Komunikazioak	-0,8	-0,1	-1,2
Aisia eta kultura	1,8	1,9	2,2
Hezkuntza	2,3	2,6	3,6
Jatetxeak eta hotelak	4,8	4,5	3,6
Aseguruak eta finantza-zerbitzuak	4,8	4,7	4,1
Zaintza pertsonala, gizarte-babesa eta askot. ond. eta zerbitzuak	2,0	3,0	2,8

Iturria: INE, eta Eurostat.

Atzerrirako esportazioek %3,6ra murriztu dute jaitsiera 2025ean


ESPORTAZIOAK GUZTIRA

Miloi euro

BATEZ BESTEKO HAZKUNDEA

2025

-%3,6




Muga zergen gudak eta merkatu nagusien dinamismo txikiagoak markatu zuten ariketaren tonua, eta kanpo merkataritzaren portaera baldintzatu zuten. Testuinguru horretan, eta Eustatek argitaratutako datuen arabera, euskal ondasunen atzerrirako esportazioek %3,6 egin zuten behera 2025ean, 2024an izandako jaitsiera motelduz, orduan jaitsiera %5,1era iritsi baitzen. Bilakaera negatibo hori gorabehera, salmenten mailak

posizio nabarmena du ikuspegi historikotik, serie osoko laugarren erregistrorik onena baita, eta argi eta garbi azken hogeitako batez bestekoaren gainetik, 23.000 milioi eurotik gertu. Horren guztiaren arabera, zuzenketa nazioarteko inguruneak eta konparazio oinarri handiak azaltzen dute, kanpoko sektorearen egiturazko narriadurak baino gehiago, esportazioak maila altuetan mantentzen baitira.


ESPORTAZIO EZ ENERGETIKOAK

Miloi euro



ENERGIAKO ESPORTAZIOAK

Miloi euro



ESPORTAZIOAK HELMUGAREN ARABERA. 2025

Herrialdea	Pisua %	Ekarp. %
Alemania	14,9	-0,1
Frantzia	14,6	-1,6
Erresuma Batua	6,6	-0,7
Italia	6,0	-0,0
AEB	5,9	-0,8
Portugal	4,6	0,0
Belgika	4,0	-1,1
Herbehereak	3,7	-0,1
Polonia	2,7	0,0


Herrialdeka, bilakaera erabat uzurtu zen, merkatu nagusiak urteko emaitzari oztupo eginez, helmugan eskari txikiagoa zegoelako. Produktu multzoen arabera, produktu energetikoen eta metal arrunten atzerakadak eragin du beherakada ia osorik. Ekipo ondasunen tonu onak, garraio materialean eta makinan eta aparatuen egonkortasunean oinarrituta, kimikoen dinamismoarekin eta nekazaritzako produktuen aurrerapenarekin batera, emaitza partzialki moteldu zuen.

ESPORTAZIOEN BANAKETA. 2025

Arantzel taldea	Pisua %	Ekarp. %
Ekipamendu ondasunak	51,4	0,53
Garraio materiala	28,7	0,53
Makinak eta aparatuak	22,7	0,0
Ohiko metalak eta manuf.	20,8	-1,31
Nekazaritzako produktuak	6,2	0,71
Plastikoa eta kautxua	5,0	-1,1
Produktu min.eta energetikoak	4,7	-2,02
Produktu kimikoak	3,3	0,24
Papera	2,3	-0,36


Inportazioei dagokienez, erosketak 26.600 milioi eurotik gorakoak izan ziren, eta %1,6ra murriztu ziren. Produktu energetikoak alde batera utzita, bilakaera askoz ere hobea izan zen eta %5,3ko hazkundea ekarri zuen, 21.000 milioi euro inguruko ondasunen inportazioen parekoa, aurrekaririk gabeko maila. Mugimendu horien ondorioz, merkataritza-saldoa superabita izan zen berriro, 3.240 milioi euro ingurukoa.

INPORTAZIOAK GUZTIRA Milioi euro



Iturria: Eustat

SALDOA GUZTIRA Milioi euro




SENTIMENDU EKONOMIKOA

Sentimendu ekonomikoa apaldu egin da eta bilakaera desberdina izan du herrialdeen artean

SENTIMENDU EKONOMIKOA. EUROGUNEA

2026ko OTSAILA

98,3




2026ko otsailean, Europako Batzordearen sentimendu ekonomikoaren adierazlea berriro ahuldu zen, bai euroaren eremuan, bai Europar Batasun osoan, eta bi kasuetan 98,3an kokatu zen, eta bere batez besteko historikoaren azpitik mantendu zen. Atzerakada hori urtarrilean erregistratutako hobekuntzaren ondoren gertatu da, adierazleak gora egin zuenean eta epe luzeko batez bestekora hurbildu zenean (100).

Otsaileko zuzenketa zerbitzuen sektorearen okertzeak eragin zuen batez ere, okertze orokorra erakutsi baitzuen iraganeko eskariaren balorazioan eta itxaropenetan, eta eraikuntzak ere neurri txikiagoan lagundu zuen beherakadan. Aitzitik, industria eta kontsumoa ia egonkor mantendu ziren, eta txikizkako merkataritzak aurreko hilabeteetan izandako hobekuntza luzatu zuen.


SENTIMENDU EKONOMIKOA. EUROPAR BATASUNA

2026ko OTSAILA

98,3




SENTIMENDU EKONOMIKOA. ALEMANIA




Herrialdeen araberako bilakaera desberdina izan zen. Alemania maila baxuetan mantendu zen, 93,0ko IGLarekin, suspertze zantzu argirik gabe eta industria oraindik bere batez besteko historikotik oso urrun. Eraikuntzak emaitza hori partzialki bakarrik konpentsatu zuen. Frantzia 97,8an kokatu zen, eta tonu ahulari eutsi zion, 2025aren amaieran bultzada galdu ondoren, eraikuntzaren eta txikizkako merkataritzaren bilakaera negatiboarekin, biak batez besteko erregistroen azpitik.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. FRANTZIA




Beste muturrean, Espainia ekonomia sendoen artean kokatu zen berriro, otsailean adierazlea zertxobait murriztu arren (106,2). Joera positiboa izan zen industrian eta oso positiboa eraikuntzan, batez bestekoaren gainetik jarraitu zuten enplegu igurikimenekin batera (110,4). Italiak ere irudi sendoa eman zuen, eta 100eko atalasetik gora mantentzea lortu zuen, zerbitzu- en eta txikizkako merkataritzaren bilakaera one- an eta enplegu aurreikuspen positiboetan oina- rrituta (106,7).

SENTIMENDU EKONOMIKOA. ITALIA



SENTIMENDU EKONOMIKOA. ESPAINIA



Iturria: Europar Batzordea.

Munduko ekonomiarako aurreikuspenak hobera egin dute, neurrizko testuinguru batean


Otsailean, Consensus Forecasts panelaren arabera, munduko ekonomiaren aurreikusatako hazkundea %2,7an kokatu zen berriro, iaz egin-dako aurreikuspenena baino zertxobait handiagoa. Merkataritza tentsioen ondorioz ziurgabetasun handia dagoen arren, Estatu Batuetako ekonomia da oraindik ere ekonomia aurreratu-en hazkundearen eragile nagusia.

Hainbat hilabetez goranzko berrikuspenak egin ondoren, otsaileko adostasunak gora egin du berriro, inbertsio pribatuaren eta adimen artifizialari lotutako teknologietako gastuaren sendotasunak bultzatuta, nahiz eta lan merkatua agortze-zantzuak agertzen hasi den, 2026an lan-gabezia-tasa %4,5 igotzea aurreikusten baita.

MUNDUKO EKONOMIAREN BPGA. 2026


Urte arteko aldakuntza tasa

AURREIKUSPENA 2026RAKO
%2,7




EUROGUNEKO BPGA. 2026

Urte arteko aldakuntza tasa




AEBETAKO BPGA. 2026

Urte arteko aldakuntza tasa



ALEMANIAKO BPGA. 2026


Urte arteko aldakuntza tasa



Euroaren eremuak, aldiz, hazkunde profil moderatua du oraindik, barne eskariaren ahultasunak eta ekonomia nagusien portaera desorekatuak baldintzatuta. Alemaniak, hainbat urtez hazkunde negatiboa edo oso txikia izan ondoren, susperraldiaren zantzu hasiberriak ditu, bultzada fiskalean eta azpiegituretako eta defentsako gastuaren igoeran oinarrituta. Frantziak, bestalde, hazkunde egonkorragoa mantentzen du, nahiz eta testuinguru fiskalak eta kontsumoaren dezelerazioak hazteko gaitasuna mugatzen duten. Aitzitik, Espainia euroguneko ekonomia dinamikoenetako bat da berriro ere, kontsumoaren eta enpleguaren sendotasunak bultzatuta.


FRANTZIAKO BPGA. 2026

Urte arteko aldakuntza tasa




ERRESUMA BATUKO BPGA. 2026

Urte arteko aldakuntza tasa




ITALIAKO BPGA. 2026

Urte arteko aldakuntza tasa



ESPAINIAKO BPGA. 2026

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Consensus Forecasts.



**Ekonomia, Lan eta
Enplegu Saila**

ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT

Urte arteko aldakuntza tasa

	2024	2025	2024	2025			
			IV	I	II	III	IV
BPG	2,5	2,3	2,0	2,1	2,2	2,3	2,4
Barneko azken kontsumoa	2,8	—	2,4	2,4	2,3	2,7	—
Familien kontsumoa	2,5	—	2,2	2,6	2,9	2,8	—
Administrazioaren kontsumoa	3,5	—	3,1	1,9	0,2	2,2	—
Kapital eraketa gordina	2,7	—	2,2	2,3	3,5	4,9	—
Barne eskaria	2,8	—	2,4	2,4	2,6	3,2	—
Esportazioak	0,1	—	0,6	2,0	0,8	-1,8	—
Inportazioak	0,4	—	1,1	2,4	1,4	-0,6	—
Lehen arloa	4,3	—	3,4	0,6	-0,4	-1,5	—
Industria eta energia	2,0	—	0,7	0,4	0,1	0,2	—
Eraikuntza	2,0	—	1,3	1,7	3,1	5,0	—
Zerbitzuak	2,9	—	2,5	2,7	2,8	2,9	—
Balio erantsi gordina	2,6	—	2,0	2,1	2,1	2,4	—
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	1,6	—	1,9	2,3	2,4	2,2	—
Enplegua	1,5	1,4	1,5	1,5	1,4	1,4	1,4

2024ko datuak aurrerapena dira eta 2025ekoak behin-behineko datuak dira.

EUSKAL EKONOMIAREN TERMOMETROA. EKONOMIA ZUZENDARITZA

Urtarrila

2025											2026
Otsa.	Mart.	Apir.	Maia.	Eka.	Uzta.	Abuz.	Iraila.	Urria	Azaroa	Abend.	Urtarrila
95,8	94,3	93,5	95,1	99,3	103,0	102,7	103,1	103,8	107,6	104,2	109,3

X<50
Atzeraldia

50<X<100
Hazkunde leuna

X>100
Hazkunde bizia

Euskal ekonomiaren termometroa 109,3an kokatu zen urtarrilean, eta azken hileetan izandako joera positiboa luzatu du. Hazkundeak barne eskarian oinarrituta jarraitzen du, batez ere inbertsioaren ekarpen nabarmenarekin, nahiz eta kontsumo pribatuak eta publikoak hazkunde garrantzitsuak izan. Kanpo arloak bilakaera oso apala izan du, eta ez du ia jarduerarik bultzatu; beraz, industriak aurrerapen oso mugatua izan du. Aitzitik, eraikuntzak hazkunde handia izan du eta zerbitzuek hazkunde sendoari eutsi diote, ekonomia osoaren hedapen ibilbidea indartuz.

ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

ABENDUKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ZUZENDARITZA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2025	2025	2026				2026	2027
	IV		I	II	III	IV		
BPG	2,2	2,2	2,0	2,0	1,9	1,9	1,9	1,6
Barneko azken kontsumoa	2,5	2,5	2,3	2,0	2,0	1,8	2,0	1,7
Familien kontsumoa	2,5	2,7	2,4	2,0	2,0	1,9	2,1	1,7
Administrazioaren kontsumoa	2,3	1,6	1,9	2,0	2,0	1,7	1,9	1,6
Kapital eraketa gordina	4,4	3,8	3,9	3,4	2,4	2,9	3,1	2,7
Barne eskariaren ekarpena	3,0	2,8	2,7	2,4	2,1	2,1	2,3	1,9
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,6	-0,6	-0,6	-0,4	-0,3	-0,3	-0,4	-0,3
Lehen arloa	-1,1	-0,6	-3,5	1,7	-0,9	4,1	0,4	2,6
Industria	0,6	0,3	0,8	0,9	1,2	1,2	1,0	1,5
Eraikuntza	4,8	3,6	4,3	3,2	1,6	1,9	2,7	1,7
Zerbitzuak	2,8	2,8	2,6	2,2	2,0	1,9	2,2	1,6
Balio erantsi gordina	2,3	2,2	2,2	1,9	1,8	1,8	1,9	1,6
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	1,9	2,2	0,8	2,0	2,1	2,2	1,8	1,7
Lanaldi osoko lanpostuak	1,2	1,4	1,2	1,1	1,0	0,9	1,1	0,8
Landunak (BJA)	1,1	1,1	0,8	0,3	1,0	1,0	0,8	0,9
Langabezia tasa	6,7	6,6	6,9	6,5	6,2	6,2	6,4	6,0

EAEKO BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2025	2026	2027		2025	2026	2027
BBVA	2,3	2,2	2,3	Eusko Jaurlaritza	2,3	1,9	1,6
Confebask	2,2	2,1	—	Caixabank	2,5	1,9	—
Hispalink	2,4	2,0	1,8	Laboral kutxa	2,2	1,8	—
Cámaras Vascas	2,3	2,0	—	Ceprede	2,0	1,6	1,8

ESTADÍSTICA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE

Urte arteko aldakuntza tasa

	2024	2025	2024		2025		
			IV	I	II	III	IV
BPG	3,5	2,8	3,7	3,0	2,8	2,7	2,6
Kontsumo pribatua	3,0	3,4	3,8	3,7	3,4	3,2	3,3
Kontsumo publikoa	2,9	1,8	2,4	1,9	1,9	1,6	1,7
Kapital finkoaren eraketa gordina	3,6	6,3	5,1	4,8	5,3	8,2	6,8
- Aktibo finko materialak	3,3	6,5	5,7	4,8	5,5	8,7	7,0
- Eraikuntzan	4,0	5,2	5,7	2,6	3,3	7,3	7,6
- Ekipamendu ondasunetan	1,9	9,0	5,6	9,1	9,8	11,7	5,8
- Landutako baliabide biologikoak	6,0	6,8	9,2	8,0	7,0	6,1	6,2
- Jabetza intelektualaren produktuak	4,6	5,4	2,6	4,8	4,3	6,1	6,2
Nazio eskaria (ekarpena)	3,3	3,6	4,0	3,5	3,5	3,8	3,6
Esportazioak	3,2	3,4	3,2	3,2	3,9	2,8	3,5
Inportazioak	2,9	6,3	4,4	5,1	6,5	6,7	6,9

BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2025	2026		2025	2026
BBVA Research	2,9	2,4	Repsol	2,9	2,2
EthiFinance Ratings	2,9	2,3	Instituto Estudios Económicos	2,9	2,1
AFI	2,9	2,2	Intermoney	2,9	2,2
Caixabank Research	2,9	2,1	CEPREDE-UAM	2,8	2,2
Cámara de Comercio de España	2,9	1,9	Santander	2,8	2,2
CEEM-URJC	2,9	2,4	Universidad Loyola Andalucía	2,8	2,4
CEOE	2,9	2,3	Consenso (batez bestea)	2,9	2,2
Equipo Económico (Ee)	2,9	2,6	AIReF (urtarrila 2026)	2,9	2,4
Funcas	2,9	1,9	EB (azaroa 2025)	2,9	2,3
ICAE-UCM	2,9	2,3	NDF (urtarrila 2026)	2,9	2,3
Mapfre Economics	2,9	1,9	Gobernua (azaroa 2025)	2,9	2,2
Metyis	2,9	2,3	Espain. Bankua (abendua 2025)	2,9	2,2
Oxford Economics	2,9	2,6	ELGA (azaroa 2025)	2,9	2,2

Iturria: Funcas.



**Ekonomia, Lan eta
Enplegu Saila**

ESTATISTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2024	2025	2024		2025		
			IV	I	II	III	IV
AEB	2,8	2,1	2,4	2,0	2,1	2,3	2,2
Txina	—	5,0	5,4	5,4	5,2	4,8	4,5
Japonia	0,1	1,1	0,7	1,6	1,9	0,6	0,2
Kanada	2,0	1,6	3,1	2,9	1,6	1,4	0,6
Europar Batasuna	1,1	1,6	1,6	1,7	1,7	1,6	1,5
Eurogunea	0,9	1,5	1,3	1,6	1,5	1,4	1,3
Alemania	-0,5	0,2	-0,2	0,3	0,4	0,3	0,4
Frantzia	1,2	0,9	0,7	0,7	0,8	0,9	1,1
Erresuma Batua	1,1	1,3	1,9	1,8	1,4	1,2	1,0
Italia	0,7	0,7	0,5	0,7	0,5	0,6	0,8
Herbehereak	1,1	1,9	2,2	2,5	1,7	1,6	1,7

Iturria: Eurostat eta ELGA.

CONSENSUS FORECAST. 2026ko OTSAILA

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2026	2027	2026	2027	2026	2027
AEB	2,6	2,1	2,6	2,4	4,5	4,3
Japonia	0,8	1,0	1,8	1,9	2,5	2,4
Kanada	1,2	1,9	2,2	2,1	6,6	6,2
Europar Batasuna	1,4	1,6	1,9	2,0	—	—
Eurogunea	1,2	1,4	1,8	1,9	6,3	6,2
Alemania	1,1	1,5	2,0	2,0	6,2	5,9
Frantzia	1,0	1,1	1,2	1,6	7,7	7,6
Erresuma Batua	1,0	1,3	2,5	2,2	5,2	5,1
Italia	0,8	0,8	1,4	1,7	5,9	5,9
Espainia	2,3	1,9	2,3	2,1	9,9	9,6
Herbehereak	1,3	1,4	2,3	2,3	—	—

Iturria: Consensus Forecast.